| | |
|---|---|
| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU-BATZARRAK 2018KO URRIAREN 2AN LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 2 DE OCTUBRE DE 2018.** |
| **<u>BERTARATUAK</u>** | **<u>ASISTENTES</u>** |
| **<u>LEHENDAKARIA</u>** | **<u>PRESIDENTE</u>** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|---|---|
| **<u>BATZARKIDEAK</u>** | **<u>V O C A L E S</u>** |

Keltse Eiguren Alberdi And.
Joseba Arregui Martínez Jn.
Álvaro González Pérez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

| | |
|---|---|
| **<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>** | **<u>SECRETARIO GENERAL</u>** |

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazortziko urriaren bian, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile diharduena, Ainhoa Simeón andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a dos de octubre de dos mil dieciocho, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora accidental, doña Ainhoa Simeón.

Alkateak, legeak eskatzen duen kide-kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**375.- UDALEKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO IRAILAREN 25EAN EGIN DUEN OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2018ko irailaren 25eko bilerakoa, hain zuzen.

**375.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 25 de septiembre de 2018.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**376.- GETXO IRRATIA UDALEKO IRRATI-ETXEA MANTENTZEKO ZERBITZUA LUZATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: 2019-01-13tik 2020-01-12ra arte luzatzea (lehenengo luzapena) NORTEK ELEKTRIZITATE ETA SISTEMAK SL (IFZ: B-20921839) erakundearekin GETXO IRRATIA UDALEKO IRRATI ETXEA MANTENTZEKO ZERBITZUA hornitzeko sinatutako kontratuaren indarraldia. Kontratuaren luzapenaren URTEKO zenbatekoa 6.124,32 euro da; horri BEZ gehitu behar zaio: 1.286,10 euro (% 21).

BIGARRENA: Aipatutako kontratuaren luzapenari aurre egiteko behar besteko kreditu (urteko zenbatekoa: 6.124,32 euro; horri BEZa -%21- gehitu behar zaio: 1.286,10 euro) egoteko ezinbestekoa izango da 2019rako onesten edo luzatzen den aurrekontuan horretarako diru kopurua esleitzea,

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**376.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LA EMISORA MUNICIPAL GETXO IRRATIA.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar desde el 13/01/2019 al 12/01/2020 (primera prórroga), la vigencia del contrato suscrito con la entidad "NORTEK ELEKTRIZITATE ETA SISTEMAK S.L.", con C.I.F. B-20921839 para el SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LA EMISORA MUNICIPAL GETXO IRRATIA, por un importe ANUAL de 6.124,32.-euros más 1.286,10.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

SEGUNDO: El crédito adecuado y suficiente para hacer frente a esta prórroga, por un importe anual de 6.124,32.-euros más 1.286,10.-euros correspondiente al 21% de I.V.A. queda supeditado a la existencia efectiva de consignación en el presupuesto que se apruebe o prorrogue para 2019, en los

aurrekontua betearazteko udal arauaren 28.3 artikuluan ezartzen den bezala.

términos previstos en el artículo 28.3 de la NMEP.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, ETA INGURUMENA**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS, Y MEDIO AMBIENTE**

**377.- LEHEN ERABILERAKO LIZENTZIA EMATEA, LEIOA ETORBIDEKO 2. ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKINA OSORIK BIRGAITZEKO OBRETARAKO, 10 ETXEBIZITZA ETA GARAJE EGITEKO BERTAN.**

**377.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN INTEGRAL DEL EDIFICIO SITO EN LA AVDA. LEIOA, 2, PARA SU TRANSFORMACIÓN EN 10 VIVIENDAS Y GARAJES.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

I.
LEHENENGOA: Leioa etorbideko 2. zenbakian dagoen eraikinaren birgaitze integrala egiteko eta eraikinean 10 etxebizitza eta garajeak egiteko gauzatutako obrak lehen aldiz erabiltzeko lizentzia ematea JUAN BOSCO SMITH SOLAUN jaunari, BURDIN BIDARTE SA enpresaren izenean. Aipaturiko obrak tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko ekainaren 2an egindako saioan hartutako 222. Erabakiaren bidez emandako obra lizentziaren babesean eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko maiatzaren 30eko saioan hartutako 237. artikuluaren bidez egindako lizentzia-aldaketaren ostean egikaritutako obrak dira. Hori guztia aurkeztutako amaierako dokumentazioarekin bat eginik (EHAEOk 2018-04-16an ikus-onetsia) eta udal-arkitektoak 2018-07-05ean igorritako txostenaren eta udaleko Azpiegituren Unitateko buruak 2018-09-19an bidalitako txostenaren arabera.

I.
PRIMERO: Conceder a D. JUAN BOSCO SMITH SOLAUN, en representación de BURDIN BIDARTE, S.A., licencia de primera utilización para las obras de rehabilitación integral del edificio sito en Avda. Leioa nº2, para su transformación en 10 viviendas y garajes, obras ejecutadas al amparo de la licencia de obras concedida por Acuerdo nº 222 de la Junta de Gobierno Local adoptado en sesión ordinaria de fecha 2 de junio de 2015 y tras la modificación de dicha licencia por Acuerdo nº 237, de la Junta de Gobierno Local adoptado en sesión ordinaria celebrada el día 30 de mayo de 2017. Todo ello de conformidad con la documentación final de obra presentada, visada por el COAVN con fecha de 16.04.18, así como los informes técnicos emitidos por la Arquitecto Municipal (el 05.07.18) y por el Jefe de Infraestructura Municipal (de 19.09.18).

BIGARRENA: Lizentzia hori emango da bere garaian ordaindutako bermeak atxikiz eta udal-ingeniariak, Azpiegitura Unitateko buruak, 2018-09-19an igorritako aldeko txostenean (baldintzekin) adierazitako akatsak konpontzeko baldintzapean. Txosten horren kopia bat erantsi zaio erabaki honen jakinarazpenari.

SEGUNDO: La presente licencia se concede con la retención de los avales en su día depositados, y condicionada a la subsanación de las deficiencias indicadas en el informe favorable condicionado emitido por el Ingeniero Municipal, Jefe de Unidad de Infraestructura, de fecha 19.09.18, cuya copia se adjunta a la notificación del presente Acuerdo.

Horrenbestez, JUAN BOSCO SMITH SOLAUN jaunari, BURDIN BIDARTE SA enpresaren izenean, agintzen zaio HILABETEKO epearen barruan zuzendu ditzala akatsok, obra egitean eta egiteagatik sortu direla ulertzen baita.

Por consiguiente, se requiere a JUAN BOSCO SMITH SOLAUN, en representación de BURDIN BIDARTE, S.A., para que dentro del plazo de UN MES proceda a la corrección de dichas deficiencias por considerarse que han sido causados por y durante la ejecución de las obra.

Beharrezko jarduketak amaitu ostean, Udalari jakinarazi beharko dio idatziz, ordaindutako bermeak itzultzeko eskatuz.

Finalizadas las actuaciones necesarias, deberá comunicarlo por escrito a este Ayuntamiento, solicitando la devolución de las garantías depositadas.

II.- Lizentzia hau beren-beregi jabetza eskubidea salbu eta inor kaltetu gabe emango da.

II.- Hacer constar expresamente que la presente licencia se concede a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

III. Ekonomia Arloak dagokion likidazioa egingo du, kontuan izanik interesdunak aurkeztu duen obraren azken likidazioa (EHAEOk 2018-04-16an ikus-onetsia) 2.006.544,91 eurokoa dela.

III. Por el Área Económica será realizada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que la liquidación final de obra presentada por el interesado, visada por el COAVN con fecha de 16.04.18 asciende a la cantidad de 2.006.544,91 euros.

IV. Udal Estatistika Sailari ebazpen honen berri emango zaio.

IV. Dar traslado de la presente al Departamento de Estadística Municipal.

**378.- OBRA-LIZENTZIA EMATEA, MIRAMAR KALEKO 13.**

**378.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA DIVIDIR UNA**

**ZENBAKIKO 3. SOLAIRUAN DAGOEN ETXEBIZITZA BITAN BANATZEKO.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA:
I.-ANA RUIZ DE VELASCO andreari, obra-lizentzia ematea Getxoko Miramar kaleko 12. zenbakiko 3. solairuan dagoen etxebizitza bitan banatzeko. Hori guztia, Juan C. Cardenal Abaitua arkitekto jaunak idatzitako egikaritze-proiektuaren arabera, EHAEOak 2018-04-03an ikus-onetsitakoa; hala, bere idatzian eskatutakoa zehatz-mehatz bete beharko du, bai eta ondoren adierazten diren baldintzak ere:

- Obra egiterakoan enpresa batek baino gehiagok edo enpresa batek eta langile autonomoek edo askotariko langile autonomoek esku hartzen badute, sustatzaileak, lanekin hasi aurretik edo aipaturiko egoera egiaztatu bezain pronto, segurtasun eta osasun arloko koordinatzaile bat izendatuko du obrak gauzatzen diren bitartean.

- Obrak egiten ari direnean, indarrean dauden segurtasun neurriak hartu beharko dituzte, besteei kalterik ez eragiteko.

- Bereziki gogorarazi nahi da eraikuntza-lanak egitean erabat bete behar direla aurkeztutako eta udalak onartutako planoak.

- Edozein aldaketa egite aldera, obrak egin aurretik eskaera egin beharko da, eta ezinezkoa izango da obrak hastea kasuan kasuko udal baimena izan gabe.

**VIVIENDA EN DOS EN EL INMUEBLE SITO EN LA C/MIRAMAR, 13-3º.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO:
I.- Conceder a DÑA. ANA RUIZ DE VELASCO, licencia para dividir una vivienda en dos, en el inmueble sito en la C/ Miramar nº 12, 3º, de Getxo, de acuerdo con el proyecto de ejecución presentado, redactado por el Arquitecto D. Juan C. Cardenal Abaitua, visado por el C.O.A.V.N., con fecha 03.04.18debiendo ajustarse enteramente a lo proyectado y a las condiciones que se indican a continuación:

- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

- Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, en evitación de daños a terceros.

- Se recuerda especialmente la obligación de ejecutar la construcción ajustándose enteramente a los planos presentados y aprobados por el Ayuntamiento.

- Todo tipo de modificación se solicitará previamente a la ejecución de las obras, no pudiéndose comenzar éstas sin el correspondiente permiso municipal.

- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, honako epe hauek ezarri dira:

a) Obrak hasteko hilabeteko (1) epea izango da, obren lizentzia jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.
b) Lanak egiteko epea 1 hilabetekoa izango da.
c) Obrak gehienez hilabetez 1 egon daitezke etenda sustatzaileari bakarrik egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio.
Obra hasi gabe edo bukatu gabe emandako epeak igaro ondoren, edo sustatzaileari leporatu ahal zaizkion arrazoiak tarteko eten egin bada luzapenik eman gabe, udalak, interesdunari entzunaldia eskainiz administrazio prozedura bideratu ondoren, lizentzia iraungi egin dela aitortuko du, eta ez da kalte ordaina jasotzeko eskubiderik egongo.
- Sortuko diren bi etxebizitzen azalera eraikia, gutxi gorabehera, honako hau izango da:
- 1. etxebizitza (hirugarren solairua), 316,29 m².
- 2. etxebizitza (laugarren solairua), 318,56 m².

II.- Obrak amaitutakoan, ikuskapen-bisita eta lehen erabilerako lizentzia eskatu beharko ditu, obra-amaierako ziurtagiriarekin eta likidazioarekin batera (eskala eta akotaturik, etxebizitza bakoitzaren azalera erabilgarria adieraziz), baita behin betiko oinplanoak ere, teknikari eskudun batek sinatuta eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita. Horrez gain, egindako obren koloretako argazkiak aurkeztu beharko dituzte.

- Teniendo en cuenta lo establecido en el Art. 215 de la Ley 2/ 2006, de 30 de Junio del Gobierno Vasco, sobre Suelo y Urbanismo, se establecen los siguientes plazos:

a) El plazo de inicio de las obras será de 1 mes, contado a partir de la recepción de la licencia de obras.
b) Se establece un plazo para la ejecución de los trabajos de 1 mes.
c) El periodo máximo que podrá estar interrumpida la ejecución de las obras por causas imputables a su promotor será de 1 mes.
Transcurridos los plazos en los que la obra no se hubiese iniciado o no hubiese finalizado, o estuviera interrumpida por causa imputable al promotor, sin que se haya otorgado una prórroga, el ayuntamiento declarará, previo procedimiento administrativo con audiencia al interesado, la caducidad de la licencia, sin derecho a indemnización alguna.
- La superficie construida aproximada de las dos viviendas resultantes es de:
- Vivienda 1 (tercera planta), 316,29 m2.
- Vivienda 2 (cuarta planta), 318,56 m²"

II.- Al finalizar las obras, solicitará visita de inspección y licencia de primera utilización, acompañada de liquidación y certificado final de las obras y planos definitivos (a escala y acotados, indicando la superficie útil de cada una de las viviendas) suscritos por técnico competente y visados por el colegio oficial correspondiente. Además presentarán fotografías en color de las obras realizadas.

Inola ere ezin dira etxebizitzak erabili, udalak lehen erabilerarako lizentzia eman arte.

En ningún caso se podrán utilizar las viviendas, sin tener concedido por el Ayuntamiento la licencia de primera utilización.

Betebehar hori bete ezean, eraikuntza-lizentziaren titularra izango da erantzulea.

Será responsable del incumplimiento de esta obligación el titular de la licencia de construcción.

III.- Berariaz agerraraziko da lizentziak eta baimenak emantzat joko direla jabetza eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenen kalterik egin gabe. (Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 211.2 art.).

III.- Hacer constar expresamente que las autorizaciones y licencias se entenderán otorgadas a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros. (art 211.2 Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo)

IV. Erabaki honen berri ematea, baita eskatzaileak honen aurka aurkez ditzakeen errekurtsoen berri ematea ere, dagozkion ondorioetarako.

IV. Dar traslado del presente Acuerdo, así como de los recursos que proceden contra el mismo al solicitante, a los efectos oportunos.

V. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari erabaki honen berri emango zaio, esku-hartzea egin den eraikina "Getxoko eremu banakatuaren monumentu-multzoaren mugaketaren" barruan baitago; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 10eko 88/2016 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera (Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 29. artikuluaren arauzko garapenerako foru araudia onetsi zuena), obrak udal-lizentzia eman aurretik eman beharreko foru-baimenaren araubidearen peko esku-hartzeen eremutik salbuetsitako jarduketak dira higiezinaren tipologia estrukturalari eragiten ez dioten barruko esku-hartzeak.

V. Dar traslado del presente Acuerdo al Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, a la vista de que el edificio en el que se plantea la intervención se encuentra dentro de la "Delimitación del Conjunto Monumental Área Singularizada de Getxo" y que de acuerdo lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación de Bizkaia 88/2016, de 10 de mayo, por el que se aprueba la normativa foral para el desarrollo reglamentario del artículo 29 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultual Vasco, se consideran como actuaciones excluidas del ámbito de las intervenciones sujetas al régimen de autorización foral previa a la licencia municipal, las intervenciones interiores que no afecten a la tipología estructural del inmueble.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak lizentzia honi dagozkion eskubideak kobratuko ditu. Obra horiei dagokien aurrekontu aurkeztua 6.606,25 eurokoa

SEGUNDO.- Por el Área económica se girarán los derechos correspondientes a la presente licencia. El presupuesto presentado correspondiente a dichas

da.

obras asciende a la cantidad de 6.606,25 €.

**379.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREKIN ELKARLANEAN, ETXEKO HONDAKIN TXIKIEN ZATIA BERRERABILTZEKO ZERBITZUA EMATEKO GASTUA BAIMENTZEA.**

Ingurumena Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, ondorengoa erabaki da:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017-06-27an sinatutako 297. hitzarmenari jarraikiz, Garbiker enpresaren (IFZ: A48212567) aldeko gastua baimentzea eta xedatzea 2018ko uztailetik 2019ko uztailera arteko aldirako: 26.000 (hogeita sei mila) euro. Hitzarmen horren helburua etxeko hondakin txikien zatia berrerabiltzeko prestaketako zerbitzu orokorra emateko Getxoko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzari jarraipena ematea da.

Aipatutako kopurua ingurumeneko aurrekontuari egotziko zaio.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakariak bilkura egun bereko goizeko bederatziak eta hamabost minutu direnean eman du bukatutzat. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

**379.- AUTORIZAR EL GASTO PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO PARA LA REUTILIZACIÓN DE LAS FRACCIONES DE RESIDUOS DOMÉSTICOS DE PEQUEÑO TAMAÑO EN COLABORACIÓN CON LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.**

A propuesta del concejal responsable de Medio Ambiente, se acordó:

Autorizar y disponer el gasto a favor de la sociedad Garbiker (A48212567) por la cantidad de 26.000 €uros (veintiséis mil €uros), para el período anual comprendido desde julio de 2018 hasta junio de 2019, en virtud del Convenio suscrito mediante acuerdo de Junta de Gobierno Local número 297, de fecha 27.06.2017; al objeto de continuar con la colaboración entre el Ayuntamiento de Getxo y la Diputación Foral de Bizkaia, para la prestación del servicio global de preparación para la reutilización de las fracciones de residuos domésticos de pequeño tamaño.

Dicha suma será imputada al presupuesto de Medio Ambiente.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Presidente levantó la sesión siendo las nueve horas y quince minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.